

Iruditu, ustez...

EURI JASA itxurazkoa bada, ondoren erriok ur-karga dezentekoa ekartzen duen tankeran, aurten fruitu urtea da. Gero atera behar-ko dira kontuak, eguraldiaren segidak edo zer arraio dela-eta aurten ia denak oparo eman duen: tomate (*Lycopersicon esculentum*), piper (*Capsicum annuum*), sagarrondo (*Malus x domestica*), udareondo (*Pyrus communis*), aranondo (*Prunus domestica*), hurritz (*Corylus avellana*) eta abar. Datozenak ikuskizun dira, baina ez dakarte itxura txarra artoak (*Zea mays*), babarrunak (*Phaseolus vulgaris*), intxaurrendiak (*Juglans regia*), elorri beltzak (*Prunus spinosa*) eta mizpirondoak (*Mespilus germanica*).

Urte ederra doa bai aurtengo hau, eta fruituen emana baliatu nahi dut oinarritzko gauza batzuk gogora ekartzeko. Adibidez: fruituak ez dira guk jan edo edateko sortu, hazi eta ekarriak. Fruituaren betebeharra haziak bildu eta bideratzea da; fruitua eman duen landare ama-

ren espezieko izabanako berriak sortuko dituzten haziak. Aurreko batean nioen eran, hazi bakoitza informazio genetiko berezi eta parerik gabeko baten kontainerra

taezko baldintza batzuk bete behar dira. Lehenengoa hazia ondo heltzea eta osatzea da, osuntsu eta gogor. Zaildu gabeko haziak ez du landare berririk sortuko. Sorkuntza hori ahalik eta errazena eta gauzagarriena izan dadin haziak ahalik eta bide naturalenari jarraitu beharko lioke. Naturan fruitua animalien bategan jan eta haziak bere simaur dosiarekin hedatuko ditu. Edo, fruitua umotu, erori eta lurtean ustelduta, daramatzan haziak “luarra” emango die.

Usteldura bat da landarearen bizitzaren helburua lortzeko bitarteko. Usteak erdia ustel duela dio esaerak. Eta dena ustel balitz? Ustea, hau da, letorkeen landarearen sorkuntza ez al

da uste soila? Edo hustea? Hutsaren hurrengoa ez al da sorkuntza guztia? Hutsa ustearen ustelduratik landarea sortzen da! Hala iruditzen zait. Iruditu ere, zura iruditzen denean ustel tankera du. Iruditzea ez al da ba uste izatea? ■



Umotu, erori eta usteldutako fruitua, daramatzan haziak “luarra” emango diena.

da. Landare banako baten sortzaila, bere espeziean berdinek izango ez duen izabanako batena.

Hazia sortzeko sexu harremana gauzatu duten bi landareen helburua –landare berriak sortzea, alegia– egoki bideratzeko, nahi-



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Gaztainondo gazte batzuk ditut eta dagoneko 2-3 metro badute. Beheko adarrak mozteko noiz da garai onena? Kostaldean bizi naiz. Eskerrik asko.

Iosu Aizpurua (Zumaia)

Kaixo Iosu. Zu kostaldean bizi zara, baina gaztainondoak? Aldamenean dituzula sumatzen dut...

Adarrak inautesteko sasoi onena datorren udaberriarekin etorriko da, izerdi berriak bultzatzen. Itsasaldean bada, martxoan. Beste aukera ekainean dator, urteko egun luzeenetako geldialdiak ekarria.

Bietan ilbeheran, noski.



EKIR-CC BY SA

Ni zure larruan banintz, bi saioak egingo nituzke: ale batzuk udaberrian eta besteak udan inausi. Eta ea zer atarramentu datorkien. Alderik bada, hurrengo urteko udan ederki igarriko diozu. Ikusmira piztu, aztertu eta ikasi. Eta gero txoko honetan emaitzen berri eman, denok jantzi gaitzen. ■